

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 64/2017 FORU DEKRETUA, maiatzaren 16koa, Innobideak-kudeabide programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dituena.**

Enpresen lehiakortasunak hainbat oinarri izan ditzake; gaur egun, funtsezkoena berrikuntza da, baina beste batzuk ere badaude: bezeroen kudeaketa hobea, produktuen kalitatea, etab. Hala ere, badago enpresa lehiakorrenak duten ezaugarri komun bat: aktibo material eta ez-materialen kudeaketa ona.

Ildo horretan, gaur egun, kudeaketa aurreratua gero eta garrantzitsuagoa da, batez ere enpresa txiki eta ertaintzat. Globalizazioaren ondorioz, lehiakideak ugartu egin dira eta merkatuak gero eta sofistikatuagoak dira; horregatik, aktiboen eta aukeren kudeaketa aurreratua behar dute, enpresaren balio-proposamena ezberdina izan dadin beti.

Hala, Innobideak-Kudeabide 2014an jarri zen abian. Programa honen helburua euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea da, kudeaketa aurreratuko metodologiak, tresnak eta printzipioak aplikatzeko eta ezartzeko laguntza emanez.

Programa hau garatzeko oinarria Kudeaketa Aurreratuko Eredua da. Eredua hori organismo eta erakundearen adostasunaren bitartez lortu da, lehiakortasuna hobetzeko aukerak bilatzean erakundeak laguntza emateko, berrikuntza-ez teknologikoen bidez batez ere. Eredua horrek kudeaketa hobetzea du helburu, 6 elementu landuta: 1) Estrategia, 2) Bezeroak, 3) Pertsonak, 4) Gizartea, 5) Berrikuntza eta 6) Emaizak.

Innobideak-Kudeabide programak planteatzen du euskal enpresek Euskaliten laguntzarekin (1. etapa) hasierako kontraste bat egitea, kudeaketa aurreratuari dagokionez enpresak daukan kokapena ezagutzeko. Hasierako kontrastea Euskalitek egindako txostenean jasotzen da. Txosten horretan jasotzen dira, batetik, kudeaketa aurreratuari dagokionez enpresak hobetu behar dituen arloak, eta bestetik, enpresak kudeaketa hobetzeko ekintza plana prestatzeko gomendioak (2. etapa).

Enpresak ekintza planean sar ditzake bere beharrezanetara hoberen egokitzen diren proiektuak, kontrastearen iradokizunak kontuan hartuta. Plan horretan proiektu pilotuak (2A etapa) nahiz kudeaketa aurreratuaren arloko finkatze-proiektuak (2B etapa) sar daitezke. Finkatze-proiektu horien artean, aurreko urteetan Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresen eskura jarri dituen metodologiak ere erabil ditzakete enpresek: Premie, enpresak kudeatzeko sistema; Xertatu:adi, enpresen gizarte-erantzukizuna hobetzeko tresna, eta azkenik, Bilgune, kudeaketan parte hartzea sustatzeko tresna.

Innobideak-Kudeabide programa Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk zuzenduko dute, eta erakunde bi horien eta hiru foru aldundien artean koordinatuko dute. Programa zatika kudeatuko da. Foru aldundiek 5-49 langile dituzten enpresek programa honen barruan egiten dituzten jarduerak kudeatuko dituzte, bakoitzak bere lurralde eremuaren barruan. Eusko Jaurlaritzak-SPRIk, aldiz, 50 langile edo gehiago dituzten enpresei dagozkien jarduerak kudeatuko dituzte. Horrez gainera, programa hau gauzatzeko Euskaliten laguntza dago. Erakunde horrek laguntza emango die parte hartzen duten enpresei, bai hasierako kontrastea egiteko fasean, bai kudeaketa aurreratuaren arloko proiektu pilotuak martxan jartzeko 2A etapan Know-Inn metodologiaren bitartez.

Laguntzen deialdi honek 5 eta 49 langile arteko plantilla duten Bizkaiko enpresen parte-hartzea arautzen du, kudeaketa aurreratuaren arloko finkatze-proiektuen etapan (2B etapa) Innobideak-Kudeabide programan parte hartu nahi dutenean.

Arlo honetako laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen arabera emango dira. Norghegiagokarik gabeko araubidea arrazoituta dago dekretu honen funtsa zerbitzuak



ematea delako; izan ere, enpresek bereziki behar dutena da erantzunak azkarrak izatea eta dekretu honetan eskaintzen diren laguntza guztien banakako jarraipena egitea.

Dekretu hau eta lortu nahi dituen helburuak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak sustatutako jarduera-multzoaren zati dira. Izan ere, programen eta zerbitzuen garapenean sustatzen ditu jarduera horiek, sailaren xedea lortzeko: aberastasuna sortzen laguntzea, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra sustatuta.

Programa hau Euskadiko Feder 2014-2020 Programa Eragilearen bidez ere finantzatu da, Feder Landa Garapeneko Europako Funtsaren arloan. Une oro begiratuko da europar politikak bete daitezen; batez ere, honako alderdi hauetan: ingurumena, auke-ra-berdintasuna, kontratazio publikoa eta europar kofinanziazioaren publikitatea.

Bestalde, genero ikuspegiari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunerako politikak ezartzeari buruzko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Foru Plana ezartzeko konpromisoa hartu du. Bada, konpromiso hori bete eta Berrikuntza Sustatzeko Plan barruan genero ikuspegia sartzeko asmoz, aldez aurretik eraginaren ebaluazioa egin da, eta beharrezkoak ziren neurriak ezarri dira. Hori guztia, betiere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundi honen Gobernu Kontseiluak 2017ko maiatzaren 16ko batzaraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

I. TITULUA

### **XEDEA ETA ENTITATE ONURADUNAK**

#### **1. artikulua. — Foru dekretuaren xedea**

Foru dekretu honen xedea da Innobideak-Kudeabide 2017 programako zerbitzuei dagozkien diru-laguntzak arautzeko oinarriak eta laguntzen deialdia onartzea. Deialdia 5 eta 49 pertsona arteko plantilla duten eta Bizkaian kudeaketa aurreratuaren arloko finkatze-proiektu bat (2B) garatu nahi duten enpresentzako da.

#### **2. artikulua. — Helburua**

Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen helburua da Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat egiten duten kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

#### **3. artikulua. — Erakunde onuradunak**

Enpresa hauek jaso ahal izango dituzte dekretu honetan araututako diru-laguntzak: Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruz Euskalitek egindako txosten bat duten Bizkaiko enpresak, kudeaketa aurreratuaren arloko ekintza planen bat, finkatze-proiektua barne, aurkezten badute, kontrastean hobetzeko identifikatutako arloak kontuan hartuta.

Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nortasun juridiko propioa izatea.

b) Jarduera hauek egitea: erazketako, eraldaketako eta ekoizpeneko industria-jarduerak; ekoizpen-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak, eta informazioaren gizartearen eta komunikazioen arloko jarduerak. Baldintza hori egiaztatzeko, enpresaren jarduera nagusiari EJZn (ekonomia-jardueren gaineko zerga) alta ematerakoan eman zitzaion epigrafeari begiratuko zaio. Onar daitezkeen epigrafeen zerrenda Kudeabide



programaren web orrian dago: [http://www.kudeabide.com/doc/IAES\\_subvenciones\\_in-nobideak\\_kudeabide.pdf](http://www.kudeabide.com/doc/IAES_subvenciones_in-nobideak_kudeabide.pdf).

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren laguntza-programek bultzatzen dituzten enpresa-sektoreak homogeneousizatzeko aldera, interes handia duten proiektuetarako onartu ahal izango dira enpresa zeinen EJZ sailkapena aipatu zerrendan sarturik ez dagoen, beti ere I. eranskinean 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeetatik kokatzen bada.

c) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

d) Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

e) 5 eta 49 pertsona arteko plantilla edukitzea, biak barne, lanaldi osoaren urteko baliokideetan.

Plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeratik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin diren langile autonomoak.

f) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

g) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

h) Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitopenaren bitartez egiaztatuko da.

a), b), c) d) eta e) baldintzak, gutxieneko pertsona kopuruari buruzkoak eta f) baldintza eskabidea aurkezten den unean egiaztatu beharko dira, eta ebazpena eman arte eta ordainketa egin arte mantendu. Gehieneko pertsona kopuruari buruzko e) baldintza, aldiz, eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar da.

g) eta h) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ezin dira erakunde onuradun izan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak (horretarako egiaztagiria dutenak) eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroak.

Kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

Diru-laguntzen entitate onuradunek bete behar izango dute diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 13 eta 41 artikuluetan ezarritakoa. Berezi, gorde behar izango dituzte jasotako diruaren erabilpena justifikatzeko dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol- aktuzioen eta kontrol finantziario funtzioak dituzten organoen kolaborazio betebeharren objektu izan ahal diren neurrian.

#### **4. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitatea**

Egitate hau joko da diruz laguntzeko egitatetzat: Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak garatzea (2B proiektuak), erakunde eskatzailearen kudeaketa hobetzeko ekintza planaren barruan daudenak, dekretu honen 10. artikuluan ezarritako puntuazio-irizpideak gainditzen badituzte.

Dekretu honi dagokionez, Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostena da Euskalitek egindako txosten bat, kudeaketa aurreratuari dagokionez enpresak daukan kokapena jasotzen duena, definitutako eredu berria erreferentziatzat hartuta. Kontrasteari buruzko txosten horretan, enpresan hobetu behar diren arloak zehazten dira, kudeaketa hobetzeko ekintza planerako. Txosten honek bi urteko balioa du, ematen den datatik zenbatuta. Kontraste hori web orri honen bidez eska daiteke: [www.kudeabide.com](http://www.kudeabide.com).

Diruz lagungarriak diren finkatze-proiektuak (2B) gutxienez eremu hauetako bat hobetzeko egin behar dira:



- Estrategia: behar den informazio estrategikoa eskuratzeko eta parte-hartzea sustatzen duten hausnarketa-prozesuak egiteko proiektuak, gerora behar bezala zabaldu eta komunikatuko den estrategia bat ezartzeko.
- Bezeroak: bezeroekiko harremanak eta balio-katearen elementu guztietan (produktuen eta zerbitzuen garapen eta merkaturatzetik hasita ekoizpena, banaketa eta mantentzea sartuta) eraginkortasuna sustatuko duten proiektuak, enpresaren estrategian eginkizun garrantzitsu bat bete ahal duten hornitzaileen eta azpikontratisten laguntzarekin.
- Pertsonak: hautaketa-prozesuak, ordainsariak eta ezagutzaren, gaitasunen eta lidergoaren garapena hobetzeko proiektuak; lotura izan behar dute enpresaren estrategiarekin.
- Gizartea: konpainiaren lan soziala egiteko proiektuak (haren ahalmenekin bat egin da), baita ingurumen-iraukotasuna babesten duten neurriak sustatzekoak ere.
- Berrikuntza: berritzeko helburuak eta estrategia definitzeko proiektuak, pertsonen arriskuak hartzea eta ekintzaileak eta berritzaileak izatea sustatzen duen barne testuingurua sortzeko proiektuak eta inguruaren ahalmen berritzailea aprobetxatzeko proiektuak. Horretarako, era eraginkor eta efizientean kudeatuko dira ideiak eta berrikuntza-proiektuak.
- Emaitzak: emaitza estrategikoak (bezeroengan, gizarteko pertsonengan eta berrikuntzari dagokionez) neurtu, ebaluatu eta kontrolatzeko mekanismoak sortzeko aukera ematen duten proiektuak.

Azken urteotan, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresetan kudeaketa hobetzeko hiru metodologia jarri ditu enpresen eskura: Premie, enpresak kudeatzeko sistema integrala; xertatu:adi, enpresen gizarte-erantzukizuna hobetzeko tresna, eta azkenik, bilgune, kudeaketan parte hartzea sustatzeko tresna. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko da metodologia horiek ezartzeko gastua, Kontrasteari buruzko Txostenean jasotako iradokizunekin bat badator, ezarritako puntuazio-irizpideak betetzen badira, eta erakunde eskatzaileak ez badu laguntzarik jaso Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren aurreko deialdietan.

Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Erakundearentzat berrikuntzarik ez dakarten proiektuak, bereziki, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde hori babestu badu antzeko proiektuetan.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.
- Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoa...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bestelako programa edo jarduketa arloen barruan sar daitezkeen jarduerak.
- Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen edota Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eskuduntzen eremuan sartzen ez diren jarduerak.

Diru-laguntza jasoko duten proiektuak eskabidea egin duen enpresan aplikatu eta ezartzeko modukoa izango da, enpresa bera izango da onuraduna eta bere jarduerarekiko koherentzia mantenduko da, eta soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpen zentroetan zuzenean aplikatzeko diren jardueren gastuak.

Nolanahi ere, proiektuak sexu arrazoiengatik ez dira baztertzailerak izango, eta ahal dela, sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatu beharko dituzte.

**5. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak**

Kanpoko enpresak edo langile autonomoak kontratatzekeo gastuak hartuko dira diruz lagundu daitekeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko aholkularitza jarduketak egitea bada.

Edonola ere, ez da loturarik egon behar enpresa eskatzailearen eta hornitzailearen artean. Ondorio horietarako, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan joko da lotura dagoela.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuek lotura zuzena izan beharko dute kudeaketa arretatuaren arloko finkatze-proiektua (2B proiektuak) definitu eta garatzeko lanekin, Euskalitek egindako enpresaren Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenean adierazitako hobekuntza-arloekin bat.
- Deskontuek eta antzekoek (fakturan sartuta egon zein ez egon) gastuaren balioa gutxitzea eragingo dute
- Diruz lagundu daitezkeen gastuak zentzuzkoak izan behar dira, eta mugatu egin ahal izango dira Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila egokitzat jotzen badu.
- Ez da diruz laguntzeko gastutzat joko fakturretan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- Hauek ere ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko: kanpoko enpresako langileen joan-etorrien gastuak, materialak egiteko gastuak, aretoen alokairua, dietak eta antzekoak.
- Fakturak hilabeteko epean eman beharko dira gehienez, proiektua amaitzen denetik zenbatuta, eta ez dira onartuko proiektua hasi baino lehenagoko data duten fakturak ezta onartu gabeko gastuei dagozkienak ere.
- Fakturen ordainketen frogagiriak fakturen data eta gerokoak izan beharko dute, edo, hala ez bada, prozesuan zehar trazabilitatea bermatu beharko da. Ez dira onartuko proiektuaren hasiera-data baino lehenagoko ordainketen frogagiriak.

**6. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa**

Artikulu honetan jasotako onurak itzuli ezin diren laguntzak dira.

Laguntza izango da, hain zuzen ere, proiektuak dituen diruz laguntzeko gastuen %60, baina gehienez ere 6.000 euro emango zaizkio enpresa bakoitzari.

**7. artikulua. — Burutzeko epeak**

Diruz laguntzen diren jarduerak laguntza eskatu ondoren hasi behar dira, baina 2017ko abenduaren 31 baino lehen.

Amaitu, berriz, hamabi hilabete naturaleko epearen barruan amaitu beharko dira, laguntza-eskabidean proiektua hasteko adierazitako datatik zenbatuta; edonola ere, 2018ko urriaren 1aren aurretik amaitu behar dira.

**8. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko maiatzaren 22an hasiko da, eta 2017ko irailaren 29ko 13:30ean amaituko da.

**9. artikulua. — Gehienez egin daitezkeen eskabideak**

Erakunde bakoitzak eskabide bat (1) aurkeztu ahal izango du. Beraz, eskabidea izaera orokorreko proiektu bati egokituko zaio.

Erakunde batek eskabide gehiegi aurkezten baditu, organo instruktoreak jakinarazi egingo dio eta 10 eguneko epea emango dio batzuei uko egiteko, bere nahierara. Erantzunik jasoko ez balitz, erakundeak egindako lehenengo eskabideak hartuko dira aintzat; horretarako txosten zenbakiari begiratuko zaio.

**10. artikulua.— Balorazio irizpideak**

Proiektuak ebaluatzeko taula honetan jasotzen diren ebaluazio-irizpideak eta puntuazioak aplikatuko dira:

Irizpidea	Gehieneko puntuazioa
1. Programaren helburuekin bat etortzea	20
2. Jarduera Planaren kalitatea	15
3. Ekintza plana proiektuaren helburuak lortzeko egokia izatea	35
4. Lortu nahi diren emaitzak eta eragina	10
5. Talde sustatzailearen eta kanpoko taldearen egokitasuna (kanpoko taldeak antzeko proiektuetan egindako lana, erreferentzia profesionala, dotazioa eta taldearen prestakuntza)	10
6. Proiektua kudeatzeko eredua eta metodologia	10

Eskabideei puntuak emango zaizkie adierazitako irizpide bakoitzean. Irizpide bakoitzean lortu ahal den gehieneko puntuazioa taulan adierazitakoa da.

Eskabidea diruz laguntzeko 50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

**11. artikulua.— Aurkeztu beharreko agiriak**

1) Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabidea, dekretu honetan ezarritakoaren arabera.
- Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostena, Euskalitek egindakoa.
- Enpresak egindako ekintza plana. Plan horretan, Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenaren ondorioen ildotik, kudeaketa aurreratuan hobera egiteko aurrez ikusita dituen ekintzak deskribatu behar ditu, orokorrean.
- Finkatze-proiektuaren (2B) memoria tekniko-ekonomikoa, web orrian eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan eskura daitekeen ereduaren arabera. Inprimakia behar bezala bete behar da, eta proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkari-taldea ahalorde nahikoa duten pertsonak sinatu behar dute.
- 4. artikuluan definitutako proposamenetako edozein gauzatzeko, enpresak eta foru dekretu honen 5. artikuluan ezarritako pertsonak edo erakundeek sinatutako kontratuen kopia. Dokumentu horretan laguntza-eskaeraren xede den lanaren eduki guztiak agertu behar dira.
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak duen enpresaren banku-helbideraketa aldatu nahi bada.

2) Jarduketa justifikatzeko, laguntza ordaintzeko eta espedientea ixteko aurkeztu behar den dokumentazioa hilabete naturaleko epearen barruan aurkeztu behar da, proiektua amaitzen denetik zenbatuta, eta, edonola ere, 2018ko azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar da. Diru-laguntzaren justifikazioa justifikazio-kontuaren sistemaren bidez egingo da; horretarako honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Finkatze-proiektua (2B) justifikatzeko memoria tekniko-ekonomikoa, web orrian eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan eskura daitekeen ereduaren arabera. Inprimakia behar bezala bete behar da, eta proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkari-taldea ahalorde nahikoa duten pertsonak sinatu behar dute.
- Egindako gastuen fakturak.
- Fakturen ordainketen frogagiriak
- Diru-laguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.





Dena dela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko; agiriak eskatzen diren unean zehaztutako epean eman beharko dira. Era berean, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bisitak egitea eskatu ahalko dio erakunde eskatzaileari, proiektua egiten ari den bitartean eta proiektua amaitu ondoren, behar bezalako jarraipena egin ahal izateko.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, jarduerak zer eragin duen ebaluatzeko, ekonomia eta enplegu adierazleak eskatu ahalko dizkio enpresari, proiektuak irauten duen bitartean eta proiektua amaitu ondoko urteetan, enpresak zer bilakaera izan duen eta proiektuak enpresan nola eragin duen ikusteko. Adierazleak aurkezteko epea informazio hori eskatzen zaion unean zehaztuko da.

### **12. artikulua.— Erakunde laguntzaileak**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailakberari atxikitako foru sozietate publiko batzuen laguntza du bere helburuak lortzeko. Beaz, S.A.U. da sozietate horietako bat. Sozietate horrek diru-laguntza egitarauan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Beaz, S.A.U. erakunde laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren izenean eta kontura jardungo du; sail hori izango da, ondorio guztietarako, foru dekretu honetan ezarritako laguntzen emalea.

### **13. artikulua.— Diru-laguntza ordaintzea**

Beaz, S.A.U. sozietatearen bitartez emango dira diru-laguntzak.

Diru-laguntzaren azken justifikazioari dagokionez, kasu guztietan, emandako diru-laguntzak aurretiaz ordainduko zaizkio erakunde kudeatzaileari, erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe.

Beaz, SAU sozietateak ordainketa bakarrean ordainduko die laguntza erakunde onuradunei, proiektua amaitzen denean, behar bezala justifikatu ondoren.

Egindako gastu hautagarria laguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontua baino txikiagoa bada, laguntza proportzionalki doituko da.

## II. TITULUA

### **DIRU-LAGUNTZENTZAKO XEDAPEN KOMUNAK**

### **14. artikulua.— Diru-laguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak**

1. Honako hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

2. Eginiko gastua da justifikazioa egiteko ezarritako epea amaitu aurretik ordaindu egin dena.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

4. Edonola ere, honako gastu hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), berreskuratu ezin daitekeen kasuetan ere.
- Diru-laguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.
- Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan joko da lotura dagoela.

**15. artikulua.— Diru-laguntza metaketa**

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. Zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

**16. artikulua.— Diru-laguntzen bateraga-rritasuna**

1) Foru dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak ez dira bateragarriak izango beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu beragatik ematen dituztenekin.

2) Nolanahi ere, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote beste diru-laguntzarik jaso duten, egun batean edo bestean eman. Horrek guztiak hala behar du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste diru-laguntzen edo laguntza ekonomikoen zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da.

**17. artikulua.— Diru-laguntzen argitaratzea**

Diru-laguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

**18. artikulua.— Laguntzaren publizitatea**

Dekretu honen itzalpean emandako laguntzen onura jasotzen duten eskabideek jasotako laguntzari publizitatea eman beharko diote, 5/2005 FAren 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren finantzaketa publikoari buruzko publizitate egokia, euskarri informatiboetan zein beste edozeinetan, esaera honetara mugatuko da: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzuriko proiektua, 2017ko Innobideak – Kudeabide egitarauaren barruan». Beren-beregi galarazita geratzen da beste edozein testu edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

**III. TITULUA****DIRU-LAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURA****19. artikulua.— Emateko prozedura**

Dekreto honen diru-laguntzak emateko prozedura lehia askearen erregimenaren arabera egingo da.

Diru-laguntza eskabideak hurrengo artikuluetan azaldutako izapideen arabera kudeatuko dira, honako berezitasunekin:

- Eskabideak iritsitako hurrenkeraren arabera izapidetuko dira eta instrukzio fasean erakunde eskatzaileak onuradun izateko betekizunak zer mailatan betetzen dituen eta diruz lagun daitekeen egitatearen lehia eta diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoa aztertu baino ez da egingo.
- Eskabideak ebatziko dira funtsak eskaerak jasotzen diren hurrenkera berean banatuz, betiere deialdiko baldintzak betetzen badituzte. Ondorioz, eskaera jasotzen den eguntzat hartuko da deialdiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa dagokion erregistroan sartu den data, foru dekretu honetako 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.



**20. artikulua.— Eskabideak nola aurkeztu**

Eskabidea, behar bezala eta oso-osorik beteta, Internet bidez aurkeztu behar da. Horretarako, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian [www.bizkaia.net/sustapena-bulegobirtuala](http://www.bizkaia.net/sustapena-bulegobirtuala) bere atari birtualari dagokion atala erabili behar da.

1. Horrela bada, eskabideak bide telematikoen bidez aurkeztu behar direnez, enpresa interesdunek alde aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute, edo BizkaiBai zerbitzurako alta eskatu beharko dute Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean (Orueta Apezpikua kalea, 6., Bilbo). Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian.

Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan alta emanda egotea (61/2010 Foru Dekretua, apirilaren 27koa. BAO 80 zenbaki., 2010.eko apirilaren 30koa). Egoera horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

2. Nolanahi ere, instrukzioaz arduratzen den organoak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ditzake, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

3. Eskatzaileak, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio organo instruktoreari, 3. artikulua aipatu inguruabarren egiaztapena zuzenean lor ditzan; hori, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Diru-laguntzen Erregelamenduari 17.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, telematikako ziurtagiri egokiaren bidez egin daiteke.

4. Eskabideekin batera arlo eta atal bakoitzean ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; arestian aipatu atari birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

**21. artikulua.— Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak**

Diru-laguntzetarako eskaerak Berrikuntza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta, eskaerok ebatzteko, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko arduradunak esanbidezko ebazpena emango du, Enpresa Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak hala proposaturik.

Emakida prozedura antolatze, bideratzeko eta ebatzteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza ordekatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkariaren bat eduki beharko dutela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aurreikusitakoari jarraiki.

**22. artikulua.— Txostenaren instrukzioa**

Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

1. Instrukzioaz arduratzen den organoak ezarri diren eta pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

2. Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari agindeia egingo zaio instrukzioaz arduratzen den organoak jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) asteguneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela uste izango dela berriaz emango den ebazpenaren bitartez, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala uler-tu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

**23. artikulua.— Eskabideen ebaluazioa**

Organo instrukzio-egileak eskabideak ebaluatuko ditu dekretu honetako 3., 4., 10. eta 11. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

**24. artikulua.— Ebazpen proposamena**

Eskabideak ebaluatu ondoren organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena igorriko dio Enpresa Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango proposamen horretan bertan onuradun ageri diren pertsoneri edo erakundeei.

**25. artikulua.— Aurrekontuaren muga**

Aurreko artikuluan aipatutakoarekin bat etorritik, aurkeztutako eskabide guztietatik aurrekontu-partidan aurrekontuek ahalbidetzen dituzten bezain beste hautatuko dira.

**26. artikulua.— Ebazteko epea**

Eskabideari saileko erregistroan sarrera-data ezarri eta ondorengo sei hilabeteko epearen barruan eman beharko da hari buruzko ebazpena

Organo eskudunak, nolana ere, aurkeztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabideari gaitz iritzi zaiola ulertuko da, horrela xedatzen baita urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan

**27. artikulua.— Ebaztena**

1. Enpresa Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebaztuko du dagokion foru aginduaren bidez.

2. Diru-laguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, foru dekretu honetan edo dagokion deialdian xedatutakoa proiektuen izaera bereziari edo bestelako inguruabarrei egokitze aldera beharrezkoa irizten bazaio.

3. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 42. artikuluetan ezarritakoa betez

**28. artikulua.— Errekurtsoak**

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa-ekin bat etorritik..

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da halako errekurtsoen bidezko jurisdikzioan jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

**29. artikulua.— Diru-laguntzari uko egitea**

Onuradun gertatu diren pertsonetako edo erakundeetakoren batek diru-laguntzari uko egingo balio, diru-laguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, Dekretu honen 19. artikuluan ezarritako ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean diru-laguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Diru-laguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposa-



mena onartzen dutenean, administrazio-organok laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) laneguneko izango da, erakunde interesdunari diru-laguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro ondoren, uko egitea diru-laguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzea dela joko da.

### **30. artikulua.— *Jakinarazpen elektronikoa***

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egi-tean, bide elektronikoak erabili beharko ditu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko

Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://www.bizkaia.eus>) bertaratuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

## IV. TITULUA

### **DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA EGIAZTAPENA**

#### **31. artikulua.— *Jarraipena***

1. Foru dekretu honetan aurreikusten diren diru-laguntzak eskuratuko dituzten pertsonak edo erakundeek lagunduko diren jarduerak gauzatu direla eta diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela agiri bidez frogatu beharko dute. Hori guztia egin beharko dute foru dekretu honetan, dagokion deialdian nahiz esleipena dakarren foru aginduan aurreikusten den moduan eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak nahiz, kasuan kasu, dagokion erakunde laguntzaileak eskatzen duen unean frogatu beharko dira.

Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, diru-laguntza jasoko duten pertsona edo erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatu beharko dute eratzten diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

2. Diru-laguntza ematen duen organok emate-erabakia ofizios aldatu ahal izango du funtsak aplikatu aurretik eta interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren. Erabakia ofizios aldatu ahal izango da diru-laguntza emateko betekizunetako bat aldatu egin bada eta, ondorioz, xedetzat hartu izan den interes publikoa bete ezin bada edo betetzeko zailtasunak izan baditu eta, bide batez, onuradun gertatu den pertsonari edo erakundeari kalte ekonomikoak eragin ez bazaizkio.

3. Onuradun gertatu diren pertsonak edo erakundeek, halaber, laguntza ematen duen erakundeari diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaizkete diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez alde aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere diru-laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.



Kasu horietan, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak jaso duen eta frogatu ez duen diru-kopurua bueltatu beharko du, baita berandutza-interesak ere.

4. Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eskatu ahal izango dizkio Planaren emaitzak egoki ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak entitate onuradunari lagundutako proiektuaren amaieratik eta hurrengo hiru urteetan.

### **32. artikulua.— *Justifikatzeko modua***

Diru-laguntzak arlo bakoitzean ezarritako agiriak aurkeztuz justifikatu beharko dira.

Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak proiektuei buruzko justifikaziorako beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio entitate onuradunari.

### **33. artikulua.— *Baldintzak aldatzea***

Pertsona edo erakunde onuradunak, bidezkoketa egiterakoan, azaltzen badu diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzetan aldaketaren bat gertatu dela eta horrek ebazpena aldatzea ekar lezakeela, dekretu honen 31. artikuluan araututakoarekin bat etorritik, hura onetsi aurretik egin beharreko administrazio baimeneko izapidea bete gabe, diru-laguntzak ematen dituen organoak aurkeztu den bidezkoketa onartuko du; horrek, ordea, ez du pertsona edo erakunde onuraduna askatuko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenetatik.

## V. TITULUA

### **DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU HAUSTE ADMINISTRATIBOAK**

#### **34. artikulua.— *Diru-laguntza erakunde onuradunak berak itzultzea***

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, diru-laguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

Onuradunak berak eskatuta diru-laguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera ordainketa-gutuna erabili behar da; gutun hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan (Orueta apezpikuaren kalea 6, Bilbo) egingo da.

#### **35. artikulua.— *Ez betetzeak***

Foru dekretu honetan nahiz aplikatu daitezkeen bestelako arauetan ezarri diren baldintzak zein, kasuan kasukoa, ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira; baita, kasuan kasukoa, kopuru horien interesak ere. Halaxe adierazten baita Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra erregulatzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II eta IV Tituluetan, dagozkion legezko ekintzen eta zehapenen kalterik gabe. Aipatutako zenbatekoak, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

#### **36. artikulua.— *Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak***

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziario publikoan sortutako soberakina.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo,



hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

Beaz, S.A.U sozietateari badagokio funtsak banatzea eta justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa izateagatik itzultzeko espediente bat ebatzi bada, ebazpen hori erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio, sobera geratutako funtsak itzultzen. Kasu horretan, ez da interesik aplikatuko.

Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketan egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da diru-laguntzaren itzulketa.

### **37. artikulua.— Zehapen-prozedura**

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarri beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutako zehapen-prozedura erabiliko da.

### **38. artikulua.— Deslokalizazioa**

Enpresa eta erakunde onuradunek enpresako deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute; deslokalizaziotzat Enpresako deslokalizazio kasuetan foru sektore publikoko laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauan xedatutakoa jotzen da; foru araua dekretu honek araututako diru-laguntzentzat guztiz aplikagarria izango da.

Konpromisoa ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioaren bidez ebatziko da, eta emandako diru-laguntza itzuli behar izateko zioa izango da, aipatu foru arauan xedatutako prozedura aplikatuz.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

### **Lehenengoa.— Jakinarazpen elektronikoa**

30. artikuluan ezarritako jakinarazpen elektronikoa buruzko betebeharrari dagokionez, jakinarazpena egiten denean prozedura ez badago teknikoki amaituta, jakinarazpena paperean egingo da, posta ziurtatuaren bidez.

## AZKEN XEDAPENAK

### **Lehena.— Ezarri beharreko arautegi orokorra**

Foru dekretu honetan aipatutako laguntzei dagokienez, aginduzkoak izango dira dekretu honetako xedapenak, laguntzak emateko foru aginduetan ezartzen diren gainerako baldintzak, foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko xedapenak, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Erregelamendua eta Estatuko edo Erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea ezarri beharko dira

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, pertsona edo erakunde interesdunak aurkeztutako datuak prozeduran edo jardueran aurrez ikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, ez beste bati lagako, baldin eta interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazten ez badu edo Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6.2. eta 11.2. artikuluetan ezarritako ka-



suetako bat gertatzen ez bada (1999ko abenduaren 14ko BOE, 298. zk.). 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, datuak lagatzen dituenak noiznahi erabili ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak, arauz ezarritako eran.

**Bigarrena. — Arauen garapena**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuak ahalmena izango du dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontu-zuzkidura amaitu ezean, bigarren deialdia egiteko ere.

**Hirugarrena. — Aurrekontuko zuzkidura**

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 350.000 euro, jarraian zerrendatuko den aurrekontu partidan, aurrekontu proiektu eta urtekoetik ordainduko dira:

Proiektuaren zk.: 2016/0055	
08.02/44300/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (euro)
2017	350.000
GUZTIRA	350.000

**Laugarrena. — Indarrean jartzea**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 16an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena  
Sustatzeko foru diputatua  
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia  
UNAI REMENTERIA MAIZ



**I. ERANSKINA**

Dekretu honen 3.artikuluan adierazitakoaren arabera, hurrengoan zerrendatzen dira EJSN -2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. zenbaki-ko BOEn argitaratua) onargarriak diren epigrafeak:

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornidura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
  - 41.1. taldea. Higiezinaren sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
  - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
  - 56.3. taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):
  - 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
  - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
  - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
  - 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
  - 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
  - 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk.
  - 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak.
- S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):
  - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeke gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahal-ko dira, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.